

## Lurraldea eta ehundura. Historia eta memoria.

Arte plastikoetan, batez ere pintura eta grabatuan, Fernando Mardonesek hainbat erakusketatan erakutsi duen lana hainbat diziplinako artisten artean oso errotuta dagoen identitate sortzailearen sintoma da. Artista horiek, batik bat, lan egiten dute itsasadarraren lurraldean, Ezkerraldeko mendietako ertzetatik historikoki ateratako burdinazko mineralak tindatutako Ibaizabalen, hidroimo gisa, edo, toponimo gisa, Bilbon.

Oraingo honetan, eskaintzen den lanak (hitz hori tokiko hiztegi eta idiosinkrasiari bete-betean dagokio) modu zehatz batean definitzen du unibertsitateko esparru akademikoko irakaskuntzan eta hainbat euskarri materialen gaineko aplikazioetan artistak eginiko ikerketa.

Lan horrek Fernando eta biok batzen gaitu. Izan ere, bat egiten dut Fernandorekin, bai eta azken 40 urteotan ezagutu ditudan beste artista batzuekin ere, betebeharrak etiko eta estetiko gisa, Ezkerraldearen ondare industrialak eta immaterialak arte ederretara transplantatzen lagundu baitute. Ezkerraldea, lurralde bat, hitzaren zentzu antropologikoan.

Lan-paradisu bat, industriako katedralez betea, non meatze-giroan eta industria epikoan doktrina sozial eta proletario bat sortu zen, nahitaez solidarioa, kultura baten sorburu izan zena. Ondorengo kontrarreforma politikoa ez zen gai izan ondare hori ulertzeko eta, gainera, haren eraikuntzen, tresnen eta instalazioen erreferentzia garrantzitsuenak suntsitu zituen.

Gertatu den guztia epopeia historikoa izan da, eta seinale eta arrasto sakonak utzi ditu, itxuraz hautemanezinak, bai eta lekukotzak eta aztarnak ere, ukigarriak zein ukiezinak. Eta aztarna hitzak, bere hainbat adieratan erakusten du denboran zehar gertatua, erakusketa honen obretan partzialki azaldu dena: seinalea, gizaki batek uzten duen arrastoa, inprimaketa sakona eta iraunkorra.

Begi aurrean ditugun lan horiek interpretazio zatikatuak dira, izateko arrazoia bere alderdi ferrikoan aurkitzen duen iragan berri eta oparo baten interpretazio zatikatuak; ferriko kontzeptu horri, testuratik harago, jendearen izaerari eta adierazteko moduei aplikatuta. Berpizte artistiko bat, bere adierazpen aniztasunarekin museorik ezak utzitako hutsa betetzen laguntzen duena.

Erakusketan, batez ere metalez, egurrez, paperez eta argazkiz egindako lan artistikoak ikusten ditugu. Irudi luke material eta euskarri horiek elkarlanean guztia eman nahiko luketela, beren sakrifizioa erakutsiz, estimulu estetikoak sortzeko gai den presentzia berrituaren truke; eta egileak, bere lan trebeari esker, hori guztia lortzen du. Eraldatzeko prozesuan eginiko jakinduriatzko ariketa baten emaitza den obra miresmena eta balorazioa merezi duen objektu nabarmenen kategorian sartzen da.

Eta sorkuntza-lan horren guztiaren emaitza testigantza bat da, benetako kemen artistiko baten testigantza, historikoki ahaleginen, iraultzaren eta sorkuntzaren segida izan zen euskal lurralde hori bizi, sufritu eta aberastu zuten gizon eta emakumeak bereganatu zituena.

**Iñaki Uriarte. Arkitektoa.**

## Territorio y textura. Historia y memoria.

La labor en las artes plásticas, especialmente pintura y grabado, que viene mostrando Fernando Mardones en sus sucesivas exposiciones, es el síntoma de una innegable identidad creativa muy arraigada entre artistas de diferentes disciplinas que, principalmente, habitan o trabajan en este territorio históricamente teñido por el mineral de hierro extraído de las entrañas de los montes de la margen izquierda de la ría del Ibaizabal, como hidrónimo, o de Bilbao como topónimo.

En esta ocasión se ofrece un trabajo, palabra que pertenece plenamente al vocabulario e idiosincrasia del lugar, definitorio de su minuciosa tarea de investigación, difusión docente en el ámbito académico universitario y aplicación matérica concreta como objeto de arte, sobre soportes materiales diversos.

Me une y me uno a Fernando y también a otros artistas que he ido conociendo en los últimos 40 años, que han contribuido como un deber ético y estético a trasplantar a las artes plásticas el paisaje, el patrimonio industrial y el inmaterial presente en Ezkerraldea, un lugar, en el sentido antropológico de la palabra.

Un paraíso laboral, repleto de catedrales de la industria, donde en medio de un ambiente minero y fabril épico creció una doctrina social, proletaria, necesariamente solidaria, génesis de una cultura que una *contrarreforma* política que no solo no ha sabido entender sino que ha destruido su legado y referencias presenciales y materiales más relevantes.

Todo lo acontecido ha sido una epopeya que ha dejado profundos signos y vestigios a veces aparentemente imperceptibles, y como tales testimonios y huellas, tanto tangibles como intangibles. Y es esta palabra, huella, la que identifica todo lo sucedido en el tiempo y expuesto en los materiales de esta muestra en sus variadas acepciones: Señal, rastro que deja un ser humano, impresión profunda y duradera.

Las obras que contemplamos son interpretaciones fragmentadas de un reciente y próspero pasado que encuentra su razón de ser en lo *férrico*, concepto que más allá de lo material textural, se otorga también al carácter de sus gentes y sus modos de expresión. Una resurrección artística que contribuye a reparar con sus variadas presencias una ausencia museística.

Apreciamos, en la exposición, en su sentido de percepción afectiva, trabajos artísticos realizados principalmente sobre metal, como si esta materia quisiese mostrarse colaborativa, capaz de crear estímulos estéticos, cosa que hábilmente tratados por el autor, evidentemente lo consigue.

Se percibe el resultado de un ejercicio experto en el proceso creativo de la obra donde el soporte, metal, papel y madera, como materia muestra su sacrificio a cambio de una renovada presencia que la categoriza como objeto notable merecedor de admiración y valoración.

Y el resultado de toda esta labor es el testimonio de un genuino coraje artístico que históricamente embargó a hombres y mujeres que poblaron, sufrieron y enriquecieron este territorio vasco, cuna de esfuerzos, revolución y creación.

**Iñaki Uriarte. Arquitecto.**